


Zergatik ordaintzen dugu gure txorrotako ura ?

Gaur egun jendartea konturatu da garrantzitsua dela ingurumenaren zaintzea. Ura edangarri bihurtzeaz eta etxeko txorrotara eramateaz gain, ur zikinak bildu eta tratatu behar dira. Horrek denak diruztatze eta teknika ahalmen handiak eskatzen ditu : horrek esplikatzen du uraren prezioa. Halarik ere, txorrotako ura botoiletakoa baino askoz merkeago da !



LABUR BILDUZ

Gure eskualdean, herriko etxeek Smun sindikatua muntatu dute, manatuz egin beharren betetzea zure txorrotan ur edangarria ukan dezazun.

- 1** Errobiko ura hartu eta iragazteko : Smun sindikatuak Uztaritzeko ur bilketa zentroa hornitzen eta mantentzen du.
- 2** Errobiko ura tratatu eta edangarri bihurtzeko : Smun sindikatuak Angeluko tratamendu lantegia hornitzen eta mantentzen du.
- 3** Ura zure etxeko txorrotara eramateko, Smun sindikatak ura ubide sarearen hornitzeko eta mantzetzeko kargua duten beste elkargo batzuei helarazten die.

Frantsesez Smun : Errobiko Lantegiko Sindikatu Anitza

Hiztegia

> Bahea

Tinkotasun desberdinetako iragazkiz osatu tresna, ura tamaina desberdinetako osagai solidoetatik bereizteko erabiltzen dena.

> Bildu

Elkartu, batu.

> Hidrosferoa

Lurra edukitzen duen ura.

> Isurialdea

Eremu geografikoa non euri urak eta isurketa urak juntatzen diren erreka baten,

antzira baten edo lurrazpiko uren osatzeko.

> Kloroa

Desinfekziorako erabiltzen den substantzia kimikoa.

> Mineralak

Osagarriarendako beharrezkoak diren osagaiak, elikagaietan eta urean atxematen direnak.

> Ozonoa

Oxigenotik datorren gasa.

> Planktona

Urean dagoen organismo

bizidun ttipi-ttipia.

> Sarea

Ura eramateko erabiltzen diren ubideen multzoa.

> Substantzia

Ekaia.

> Toxikoa

(toxikotasuna)

Pozoiaren eragin bera.

> Ur bolumena

Ur kantitatea.

> Zintzilik dauden partikulak

Urean dauden zati ttipi-ttipiak.

Itzulpenen egilea : Euskal kultur erakundea


Rivière&Co RCS Toulouse B 418 454 593

Ura, ibaitik txorrotara

Ura zaindu, bizia zaindu.

Bizia uretik dator. Asteak egon gaitzke jan gabe bainan bakarrik hiru egun edan gabe ! Ura ez dugu soilik edateko behar baizik eta garbitu, pentzeak ureztatu edo lantegien funtzionazteko...

Gure herrian, txorrota idekitzen dugun ber, ur edangarria heldu zaigu. Bainan ezin duzu ura ibaitik zuzenean edan ez baita edangarria : tratamenduak beharrezkoak ditu etxe bakoitzera, eraikin bakoitzera eramana izan aitzin.



Uraren zikloa

3 miliar urtez geroztik, Lurra edukitzen duen ur zama (hidrosferoa) ez da ez emendatzen ez ttipitzen. Zerutik lurrera, beti ur bera ibilki da : prezipitazioak, ixuriak eta lurrunketak, **ura ziklo berean dabila eten gabe.**

Ibaitik txorrotara, uraren ibilbidea...

Ura erautsi eta iragazi

Isurialdera erortzen eta ondotik isurtzen den ur ttantta bakoitza, Errobi ibaira heltzen da. Ura, Uztaritzen, Errobi bere egoitza naturalean hartzen dugu.

URAREN PONPATZEA :

- > Ur-hartze ubide batek **hartzten du ura**.
- > Ura zenbait zentimetrotako burdin-sareetatik eta zenbait milimetrotako baheetatik iragaten da osagai larrien baztertzeko : orbel, harri, alga...
- > Ponpa batzuen bidez ura ibilarazten da eta ubideetan barna tratamendu lantegira eramaten da.

1

Zergatik urak edangarria izan behar du ?

Ura edangarria bilakatzen da arriskurik gabe edan dezakegarrik. Naturako osagai batzuk edo gure ondarkinek kutsa dezakete. Naturako osagaiak : lurra, legarrak, planktonak, bereziki uretan daude zintzilik : **ura iragazi behar da**. Ondarkin kutsakorrek : ura baliatzen dugu ere gure etxe, lantegi eta etxalde-ondarkinak kanporatzeko : **ura tratatu behar da**. Ur edangarria ekoiztu eta banatzeko, urratsez urrats, urak daramatzan osagai **eta substantzia kaltegarri guztiak baztertuko dira**.

UR EDANGARRIAREN IRIZPIDEAK :

- > Toxikotasunik ez.
- > Mineralak orekatuak.
- > Gusturik ez.
- > Kolorerik ez.

Ura tratatu :

Errobi ibaia tratatzen duen Angeluko lantegiak osagai kutsakorrek baztertzen ditu, larrietik xehenera prozesu bikoitz baten bidez : **kimikoa eta fisikoa**.


DEKANTAZIOA : tratamendu bati esker, uretan dauden partikulak metatzen dira eta ondorioz, pisuago izanez, arroaren zolara erortzen.

IRAZKETA : ura partikula ttipienak atxikitzen dituzten iragazkietatik (harea-geruza batez osaturik) pasatzen da.

ULTRA-IRAZKETA : ura mikrobioak atxikitzen dituen mintz (iragazki xehe-xehea) batetik pasatzen da.

DESINFEKZIOA : kloro eta ozonozko tratamendu baten bidez, gure osagarriarentzat kaltegarri izan litezkeen mikrobioak eta birusak baztertzen dira.

2



3

Ura banatu

Ur edangarria ekoizten den lantegitik etxeke txorrotara, ura ubide zirkuito batean barna ibiliko da.

> Tratatu ondoren, ponpatuz urtegi edo ur-gaztelura igortzen da. Hortik, banaketa sarean barna ura badao zerbitzu publikoen (suteen kontrako borroka, baratze publikoen urtatzea, etabar...), lantegien eta zure etxearen hornitzera.

> Zure etxean edo apartamenduan, txorrota nagusi bat eta baliatzen diren ur pinten neurtzeko kontagailu bat badaude.

Eta ondotik zer ?

Komunetatik, konketatik eta pegartegitik behera isurtzen den ura estoldetan biltzen da. Osagai kutsakorrez kargatua, saneamendu sistema batzuetan (araztegia edo sistema autonomoa) garbitu behar da ibaira bota aitzin. Bainan hori, beste istorio bat da....

4